

2002ko urriaren 17a • XXII. urtea



**Elizondoko feriak
urriaren 25ean...**

GB

Udazkeneko lehen feriak ailegatu dira. Urriaren 25ean, ortzilaran, Elizondon bilduko dira Baztan eta ingurueta baserriar eta bisitariak, ikustera eta eroatera.



**...Lurraren Eguna
urriaren 27an**

06

Urriaren laugarren igandean, berri, XVI. Lurraren Eguna ospatuko da Beran. Zortzi urteren ondoren, Mikologi Jardunaldiak ere berreskuratu dituzte.



**03 LAB sindikatu nagusia Aceralian
ELAren banaketaren ondorioz**



MUEBLES A METS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak



BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sarrera BERAtik da *Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*
31789 LESAKA *Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443*

LEHEN MAILAKO SEGURTASUNA



EGUR LEHERTZEKOAK

**Kalitate
eta
prezio
egokiak**

KABESTRANTEAK



AROZ - BERRI, S.A.

NEKAZARITZAKO TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a

Tel: 948 581 021 - 948 580 258 • Fax: 948452103

31730 IRURITA

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemmanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



LAB DA ORAIN SINDIKATU NAGUSIA

Hauteskunde sindikalek nabarmen aldatu dute ACERALIAko Enpresa Batzordearen dinamika

ACERALIAk Enpresa Batzorde berria estreinatu du hauteskunde sindikalen ondotik. LABek 6 ordezkari izanen ditu, ELAk 5, UG Tk 5, Confederación de Cuadrosek 3, CC00k 2 eta ESK-CUISek 2. Sindikatu abertzaleek lan dinamika berria iragarri dute.

J. IRIGOIEN

Aceraliak Legasa, Lesaka eta Zalainen dituen lantegietako 1.341 langileek euren ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundeak izan zituzten joan den asteartean, urriak 8. Eta itxura guztien arabera, haize berriak ekarriko ditu sortu berri den indar korrelazioak.

Aitzineko hauteskundeetan, 1998koetan, ELA izan zen indar nagusia 10 ordezkari-

rekin. LABek 6 delegatu zituen, ESK-CUISek 3 eta CCOO eta *Confederación de Cuadros*-ek bina.

POLEMIKA GIROAN

Polemika giroan joan da kanpaina osoa azken eguna bitarte. Izan ere, azken hilabeteotan ELA utzi eta UG Tra pasatu ziren ia berrehun afiliatu eta hamar delegatuetatik bederatzi. Gertaera horrek, berez, berebiziko lurrikara eragin du ACE-



RALIAN, ez bakarrik hauteskunde kanpainaren garapenean, baita hauteskudeen emaitzek ekarriko duten lanerako dinamikaren ere.

LANEAN HASTEKO PREST

Hauteskunde kanpainaren sukarra pasatu deanean, lanean hasteko tenorea etorri zaie sindikatuei. Hemendik aitzin *"dinamika berria"* espero dute LAB, ELA eta ESK-CUI-Sek. Zentzu horretan, *"lehen erroka"* Komiteari antolaketa berria ematea da LABentzat, *"ordezkaritza eta helburuak hasieratik zehaztuz"*. Horrekin batera, sailkapen profesionalen planifikazioarekin batera, behin behineko kontratua duten langileen arazoa da sindikatu gehienek mahai gainean jarri dutena. Izan ere, lau langiletik bat behin behineko kontratuarekin ari da ACERALIAN, eta sindikatuek salatu dutenez, *"Nafarroa osoko bertzte lantegi handietan ez da inon horrelako behin behineko lanqile kopururik"*.

**LAN HITZARMEN
BERRIAREN
NEGOZIAZIOA**

Lan Hitzarmena presta-
tzea da Komiteak begibis-

23 DELEGATU BERRIEN ZERREDA

LAB

- | | |
|---------------------|----------------------|
| • Enrike ERREGERENA | • Iban MAIA |
| • Joxemari LASAGA | • Julen MITXELTORENA |
| • Juanma CABALLERO | • Batti ESKUDERO |

ELA

- | | |
|------------------------|-----------------------|
| • Luis Mari ETXEBERRIA | • Aureliano GUTIERREZ |
| • Venancio GRAVINA | • Jose J. PEREZ |
| • Luis Mari SANCHEZ | |

UGT

- | | |
|---------------------|--------------------|
| • Jose SEGURA | • Pedro Luis MAZAS |
| • Joaquin BENGOTXEA | • Isidoro SANCHEZ |
| • Enrike LOPEZ | |

Confederación de Cuadros

- | | |
|----------------------------------|----------------|
| • Agustin PORTU | • Jesus CASTRO |
| • M ^a Estrella PASCUA | |

CCOO

- Jose Cruz GARCIA • Ramon ALVAREZ

ESK-CUIS

- Jose M^a TELLETXEA • Sabas AMOEDO

ORDEZKARITZA SINDIKALA ZENBAKITAN

	Botuak			Delegatuak			
	1994	1998	2002	1990	1994	1998	2002
LAB	365	342	358	5	6	6	6
ELA	502	471	268	9	9	10	5
UGT	41	56	253	1	0	0	5
C. Cuadros	124	84	129	3	2	2	3
CCOO	136	118	119	3	2	2	2
ESK-CUIS	163	111	97	2	4	3	2
Partehartzea		%90,94	%92,92				

tan duen gairik potoloenetakoa. Hortaz, negoziatzen hasteko deia eginen zaio zuzendaritzari urtea bukatu baino lehen. Itxuraz, AR-

CELORen barnean lantegika negoziatuko da lan hartzarmena, eta hortarako, epeak eta egutegia zehaztuz hasiko dira.

HAUTESKUNDEAK



Julen MITXELTORENA
LAB

«Komite hau langileen neurrira egin da. Orain arte ez zen horrela»

Egia da ELA-UGT arteko gatazkatik botu batzuk espero genituela, baina azkenean, botuak ELAn gelditu direla ikusi dugu. Guk lortu ditugun botuak gureak dira, izerdiarekin irabaziak. Azkeneko hauteskundeekin konparatuz, halere, 16 botu gehiago lortu ditugu. Hortaz, pozik gaude emaitzekin, baina harrokeriarik gabe.

Dena den, uste du-
gu Komite honek au-
kera ematen duela,
benetan lantegi guzia
ordezkatzeko, langi-
leen neurrira egina
baita eta ez orain ar-
te bezala, zuzendarit-
zaren neurrira. Alda-
keta hori izugarria da,
beharbada ez da ikus-
ten, baina izugarria
da. LAB horretan aha-
leginduko da burube-
larri.

Batzorde berria lanean hasten denean, mahai gainean dugun lehen erronka langileon ordezkaritza antolatzea izanen da. Saillkapen profesionalaren planifikazioa eta Hitzarmen berriaren negoziatzia ere ate joka ditugu.

Sindikatu guztien balorazioak



Aurelio GUTIERREZ
ELA

«Seigarren delegatua izanen genuke hiru botu gehiagorekin»

Emailtzak ikusi on-dotik, naturalki eman daitekeen aliantza da ELA, LAB eta ESKren artekoa. Hiruen artean 13 ordezkari ditugu, eta beraz, gehiengoaren Enpresa Batzordean. ELA da orain bigarren sindikatua botuetan. UGT hirugarren gelditu da, kanpaina zikina egin arren, espero zituenak baino boto gutxiago lortuta seguraski. Horrek bai ematen diela min UGTkoiei. Bestalde, botu gutxiengatik aldaketa handiagoak ere izan zitezkeen. Adibidez, LAB-ek 2 botu gehiago lortu balitu langileen hautesmahaian zazpigarren delegatua izanen luke eta UGTk bat gutxiago. ELAk ere, 3 botu gehiago izan balitu enpleguetan, seigarren delegatua izanen genuek ESK-ren kaltetan.

Hemendik aitzin, UGTren "favoritismoa"ri bukaera ematen ahaleginduko gara, eta era berean, lanpostu finkoak sortzearen alde ahaleginduko gara.



Enrique LOPEZ
UGT

«Beteko dugu gure lanarekin segitzeko eman genuen hitza»

Aski emaitza onak izan dira guretzat. Hori ikusita, gure lanarekin segitzeko eman genuen hitza beteko dugu orain.

Indartua ateriko da Komite berria, zabalagoa, sindikatu desberdinen artean ongi partitua.

Orain lanean has-teko garaia da. Lehenik, Lan Hitzarmen berria negoziatzeko hasteko deia eginen diogu zuzendaritzari. Bigarren, argitu behar dugu nola geldituko den sailkapen profesionala eta soldatena, eta hirugarrenik, ARCELOren egituraketa xehea nola geldituko den aztertzea. Zentzu honetan, tuboen aferan, adibidez, mugimendu garrantzitsuak ari dira gauzatzen egunotan, eta etorkizun hurbilean argitzen joanen direla. Gu hor egonen gara.

Azkenik, Komite berriko kargu izendapenak eta antolamenduari dagokionez, UGT irekita da aukera desberdinei, logikoki, sindikatu nagusien artean.



Jesus CASTRO
C. Cuadros

«Eskualdeko interesak defendituko ditugu denek gainetik»

Gure lan sindikala eguneroko lana da eta eskualdea defendituko dugu guztia gainetik. Izan ere, Lesakako Laminazioak erosi duten enpresa guziek, etekina atera diote gure lanari baina ez dute batere inbertitu eskualdean. Lesakatik pintura lerroa kendu eta Aviles-era eramanez zuten deus berririk ekarri, eramandako ordezkatzeko. Azken urteotan inbertsio tiki batzuk egin dira dagoeneko 20 urte dituzten instalazioei kapazitate gehiago emateko eta bertzerik ez. Horrek kezkatzen gaitu. Zalainen adibidez, Condesarekin elkartuz gero, izorratuko liguke berri ere gu izatea kalteuen ateratzen garenak. Gaia elektoralki erabiltzea ez zaigu batere gustatu. Zuzendaritzatik hain hurbil diren horiek dira, UGTkoak hain zuzen, pintura lerroa eramanez zutenak, eta orain, jendeak kontuan hartu behar luke hori dena.



Jose Cruz GARCIA
CCOO

«Komenioari begira, orain dugun akordio markoa berritu nahi dugu»

Gure kasuan, lortu dugun emaitza orain dela lau urtekoaren berdina da kasik. Botoren batzuk gehiago ditugu orain, baina gainerakoan berdin. Gure oinarria, fideltasun handikoa izateaz gain, egonkorra ere bada, ageri denez.

ACERALIAk Espainian dituen bertze lantegietan sendotua den sindikatua da CCOO. Gure planteamendua, zentzu horretan, akordio markoa berregitearen aldekoa da. Gutxienez oraingoaren berdina edo akordio marko handiagoa, posible bada, ARCELOReko lantegi gehiago ere sartuz. Adibidez, Aristrain-ek Gipuzkoan edo Madrilan dituenak sartuz.

Tuboen aferari dagokionez, informazio ona dugu. Izan ere, CCOOko metaleko idazkaria dago Administrazio Kontseiluan. Dena den, gure sindikatua, ACERALIArekin egin daitekeen edozein desinbertsioaren kontra dago, jakina.



Pello ASTIZ
ESK-CUIS

«Gehiengo berri bat sortu da orain, lehen zegoena baino hobea»

Delegatu bat galdu dugu. Egia da azkeneko hauteskundeetan erretoengatik aterria genuela hirugarren delegatua, eta orain, partehartzea handitu egin denez, eta guk botu gutti batzuk galdu ditugunez, azkenean, galdu egin dugu hirugarren delegatu hori.

Ikusi denez Komiteko egoera aldatu da orain. Ikusi behar oraingo ELAk zein jarriera hartuko duen, baina gure ustez gehiengo berri bat sortu da orain, eta pentsatzen dugu lehen baino egoera hobea gaudela ELA-rekin Komitearen funtzionamendu berria adosteko. Azken finean, Komitea osatzeko egunean ikusiko dira nondik nora doazen gauzak. Gure ustez hoberako izanen da. Gu prest gaudete hitzegiteko bai ELA-rekin eta baita LABekin ere, eta naturalki hortik gehiengo bat sortuko dela. Denetan ez gara ados egonen, baina lerro nagusietan bai.

BERA

XVI. Lurraren Eguna urriko azken igandean

Bezperatik ekitaldi aunitz ikusteko aukera izanen da

Amaia eta Ainhoa

Urriaren 27an XVI. Lurraren Eguna ospatuko da. Gure Txokoa elkarteak Udalaren babespean eta Kultur Batzordearen laguntzarekin hainbat ekitaldi antolatu ditu. Goizean, 10:30tan XXII. Lizuniagako Igoera egingen da. Hortik aitzinerat, Altzate Karrikan barazki erakusketa, sagardo lehiaketa eta Euskal Herriko lurralde guzitatik etorritako artisauen lanak izanen dira ikusgai. Musika ez da faltako igandean, Berako Eskolako trikitilariak, txalaparta, Musika Eskolako txistulariak, akordeoiariak, banda, eta horretaz gain, arratsaldean, perkusio eta pop-rock taldeen saioa izanen baitugu. Gure Txokoako dantzariak ikuskizuna eskeiniko dute eguerdian eta ondoren artisauek bazkaria izanen dute eskolan. Arratsaldean, lehiaketetako sariak banatu eta bertso saioa eskeiniko dute Maialen Lujanbio, Julen Zelaieta eta Andoni Egañak. Eguna Irats taldearekin dantzatzeko akautuko da. Baina Lurraren Egunaren arrastoa bezperatik somatuko dugu



ARGAZKIA: JUANJO ALONSO

Bertze urte batez, eskulangileen abildadeak ikusteko modua izanen da Lurraren Egunean.

ekitaldi batzuk prestatu baitira: 16:00etan Euskal Herrialdeetako Herri Kirol Txapelketa finala kiroldegi aintzinean jokatu da. 22:00etan Pui Ostatuan

doinu gogorrez gozatzeko aukera izanen da Berako Borrokan eta Lemoako Eten taldeekin.

1994. urtetik egin ez ziren Mikologia jardunaldiak egingen dira aur-

ten. Ortziralean solasaldia izanen da Ehizi eta Arrantza elkartearen, mendi irteera eta onddoen sailkapena egingen dira larunbatean eta erakusketa igandean.

ABELZAINZA

Lizuniago Mahain Harrian Fazerien sinaketa egingen da urriaren 26an

Urriaren 26an, larunbatarekin, Lizuniagako Mahain Harrian Fazerien sinaketa egingen da eguer-

dian. Bera, Azkain, Sara, Etxalar eta Urrunako udalek bortz urtetik behin egin ohi duten bezala, herri to-

pagunea egingen dute fazezien akordioa sinatzeko eta horrela herri bateko aziendek bertze herriak bazkatzeko erabiltzeko baimena lortzen dute.

FLASH

Mobleen zaharberritze ikastaroa

Azaroaren 9an hasiko da mobleen zaharberritze ikastaroa. Guzira 60 ordu emanen ditu Kevin Butcher irakasleak. Larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara izanen dira klaseak Rikardo Barroja eskolan. Nafarroako Aurrezki Kutxak laguntza eman du ikastaro honetarako eta bakoitzak ordaindu beharrekoa izen ematen duen jende kopuruaren arabera izanen da.

Martikok Delicass enpresa erosi du

Conservas Martiko enpresak, delicatessen produktuak egin eta merkaturatzen dituen Delicass enpresaren akzio guztiak erosi dizkio Campofrio taldeari.

Herriko Etxeko obra

Herriko Etxea moldatzeko proiektua, segurtasun eta osasun azterketa eta koordinazioa eta obra zuzendaritza lanak Bidasoa Arkitektura Bulegoari eman zaizkio. Bertze borts eskaintza aurkeztu ziren baina haun da egokiena udalaren ustez.

2003. eko Udal zergen tasak

Udalak 2003ko Udal zergen tasak goitza onetsi du irailaren 26an egingadako batzarrean.

Zuzenketa

Labiaga ikastolan Haur Hezkuntzan 42 ikasle dituzte aurten eta ez 30.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Alzuri

Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak

Telefonoa: 948 630 370
BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

LESAKA

Azaroan abiatuko da Batzokiak antolatutako lehen mailako VI. paleta goma txapelketa

Hogei bikotek parte hartu ahal izanen dute Rural Kutxa Sari honetan

Aitor AROTZENA

Lesakako Batzoki elkarteak Nafarroako Rural Kutxa eta Lesakako udalaren laguntzaz sei garren urtez antolatu duen lehendabiziko mailako paleta goma txapelketa azaroan hasiko da, Rural Kutxa Saria izenarekin. Izena emateko epea urriaren 20an akautuko da eta bikote bakoitzak izena ematekoan 24 euro ordaindu beharko du. Epe hau kontutan hartzekoa da, izan ere txapelketan izena ematen duten lehendabiziko hogei bikoteek hartuko dute parte. Antolatzaileek txapelketa hasi aitzinetik jokua arauak, txapelketaren arautegia, lehenbiziko fasearen partidu guzrien egutegia eta final-laurden, finalerdi eta finalerako gurutzamenduak banatuko dituzte. Era berean, partiduetan erabiltzeko ka-

miseta ofizialak emanen dizkiete.

Bortza bikoteko lau talde sortuko dira, eta talde bakoitzean ligaxka bat jokatu da, hurrengo fasera nor pasatu den erabakitzeko. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek bigarren fasea jokatu dute. Bigarren fasean, final-laurdenetatik hasita, sistema kanporagarria erabiliko da. Partiduak larunbatero arratsalde eta igandero goizez jokatu dira Lesakako udal pilotalekuan. Izena emateko edota azalpen gehiago eskatzeko Batzoki elkartera, 948 627 522 telefonora edo frontoira, 948 627 518 telefonora deitu, (Begoña edo Kastro).

Udal beilatokia eraikitze deialdia

Zarandia karrikan egin gogo den udal bei-

latokia eraikitze lanak emateko enkante deialdia egin du Herriko Etxeak. Proiektua Carlos Urrutia Jimenez arkitektuak idatzi du eta hasierako aurrekontua 349.608,06 eurokoa da (BEZa barne). Behin lana emandakoan, kontratistek borts hilabete epea izanen dute beilatokia akautzeko. Proposamenak azaroaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Aurtengo udal aurrekontutik 179.645,76 euro bideratu dira lan honetara. 107.787,46 euro zerbitzua eskainiko duen enpresak ordaindu beharko du.

Koldo Atorrasagasti zinegotziaren heriotza

Urriaren 4an hil zen, 56 urte zituela, Koldo Atorrasagasti Gaztaka



UTZITAKO ARGAZKIA

Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga trikitilari eta panderojoleek ez dute nolanahiko uda burutu. Baztan, Malerreka eta Bidasoako txapelkunak izan ziren uztailean. Geroztik, Euskal Herriko txapelketaren finalean laugarren postua eskuratu zuten. Bertze zenbait herrietako txapelketa garrantzitsuetan ere aritu dira, bigarren eta hirugarren postuak eskuratuz.

Batasunako zinegotzia, eritasun luze baten ondorioz. Bere borondatea betez, gorpua erraustu eta erdia Andoainen, aitaren base-ri inguruan eta bertze erdia Sastrinen hedatu zuten. Urriaren 6an egin zen herriko ekitaldian, udalean lankide dituen Txoltxanek eta Xabier

Portuk solas batzuk eta aureskua eskaini zioten. Manolo Arotzenaren bertsoekin eta txalaparta doinuekin eman zioten azken agurra Aitorrari. Aceralian ekonomilari gisara aritzen zen lanean.

Eduarne Rekondok hartuko du bere lekua Herriko Etxean.

ANAI
Janari idendak
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
3441
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

IRU BIDE
ERRETEGIN
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haitzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

INIONE - GOZOTEGIA
Altzate, 19 • 948630786 • BERA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Igande honetan ospatuko da usazaleen eguna, Usategietako Igandea

Larunbatean bertso afaria izanen da Egaña, Kolina eta Silveira bertsolariekin

Joseba eta Nerea

Urriko hirugarren astebukaera berexia izaten da etxalartarontzat. Gure herria larmendi aldean dauzkagun Usategiengatik da ezaguna eta urtero bezala Usategietako Igandea ospatuko dugu aurten ere. Herritar guzientzat hagitx asteburu seinalatua izaten da, familiarekin elkartu eta aspaldiko lagunekin Usategietatik buelta bat emateko egun aproposa izaten delako. Eguraldiak lagun-tzen badu behintzat, dagoeneko ohitura den bezala leku desberdinetatik etorritako bisitari andana ibiliko da usazaleek egiten duten lana ikusten goiz partean. Bazkalondoren, herrira jautsiko dira udalak eskaintzen duen dantzaldiaz gozatzera. Aurten goan "Jalisko Band" izanen da plaza bazterrek alaituko dituen taldea, hortaz gain Altxata kultur elkarteak Andre Mari dantza taldeko kideen laguntzaz ostatua pa-



Mikel Goñi Etxalarren

Azkeneko hilabetean gure herria arrotz samarra dago, ETBko "Basetxea" programaren grabaketa dela eta. Irailaren 21ean hasi ziren, Bagoleko borda "Basetxe" bihurtuz, eta ordutik inguruko hainbat lekutan probak egiten ari-tu dira. Proba horien artean ikusmin berexia sortu zuen frontoian jokaturiko pilota partida batek. Protagonista Mikel Goñi eta aurkariak Basetxeko lehiakideak. Partidu berexi hori ikustera herritar andana bildu zen eta gus-tura gelditu ziren Mikel Goñik eskaini zuen ikuskizunarekin. Mikelek pilotak ezker eskuarekin eraman behar zituen edo bertzela eskuinarekin joz gero, hanka azpitik edo gibeletik jo behar zuen. Partidu ikusgarria.

ratuko du frontoian pin-txo, bokadilo eta bertzelakoak eskainiz, horrela dantza taldearen-tzako dirua ateriz. Aipatu, urtero gisan bole-toak salgai daudela aur-tengoan honako sarie-kin: lehenbizikoa 12 us-

bizirik eta bigarrena herriko bestetako moto-zerra erakustaldian egi-niko irudi saila.

Kultur Egunetako azken ekitaldiak

Aste honetan aka-



tur Etxean arratseko 8tan; Ander Lipus akto-reak "ardoaz" monolo-go arrakastatsua eskai-niko digu. Eta bukatze-ko, larunbat honetan bertso-afaria izanen da Herriko Ostatuan gaue-ko 9tan Sustrai Kolina, Andoni Egaña eta Xa-bier Silveira bertsola-riekin.

Obrak emakumeen soziedadean

Andra Mari emaku-meen elkarteak Arotze-nean duen soziedade-an obrak egin ditu. Ur-teak dira elkarte honen egoera ez zela nahi be-zain ona, zola nahiko hondatua zegoen eta hezetasun anitzeko le-kua zen. Irailaren 30ean hasi zituzten zola berri-tze lanak, lehengo bal-dosa zaharrak kendu eta parket flotantea para-tzeaz gain, komuna eta tximinia berria paratu di-tuzte. Itxura ederra har-tu du heldu den urtean 25. urteurrena ospatze-ko.

PINTURAS LEGUIA S.L.
Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
Eztegara 26, 2.C - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

HERRIKO
OSTATU - JATETXEA
KARREKORRA 10 • BARRIO DE
EUSKAL • NAFARROA

IGANTZI

San Migel bestak joan dira, orain bakoitza bere lanera

Eskolako gurasoekin irailean egin zuten urteko bilkura nagusia

Oskar TXOPERENA

Urruti samar gelditu zaizkigu bestak dagoneko, baina ez ditugu horregatik aipatu gabe utziko.

Aurtengo besten gauzarik aipagarriena aspaldiko urtetako eguraldirik ederrrena izan da, freskoa lehenbiziko egunetan eta beroa eta guzi azken aldera. Giroa ere polita izan da. Ekitaldirik jendetsuenak zein izan diren erraten ahal dugu: Herri Kiroletan, bi larunbatetan segidan jende anitz bildu zen pilotalekura. Nabarmenezkoa da antolatatu eta parte hartzen duten gazteek herria girotzeko egiten duten ahalegina. San Miguel eguna ere borobila aterazen, dantzariak eskertzen, euren eguna da dudarik gabe, goizez plazan eta arratsaldean pilotalekuan. Pilota partidetan ere giro ederra izan da. Azken eguna herri bazkariarena eta haurrena izan zen. Bertzetan baino jende



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Aurtengo bestetan momentu hunkigarriak ere bizi izan dira. Urtero-urtero herri kirol ekitaldia antolatzen aritzen zen Luis Mari Zelaletaren familiak Igantziko Herri Kirol taldea, Herriko Etxea eta Nafarroako Herri Kirol Federazioaren omenaldia jaso zuen. Argazkian, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren ordezkariaren oroigarria hartzerakoan.

guttiago bildu zen bazkaltzera, baina ederki pasatu omen zuten. Haurrek, berriz, Berako suhiltzaileek banatutako aparraz eta txu-txu trenaz gozatu zuten euren egunean.

Guraso Elkarteak

Ikasturtean bizpahiru bilkura nagusi egiten dituzte eskolako gura-

soek. Irailekoa izanena da garrantzitsua, ikasturteko erabaki nagusiak orduan hartzen direlako eta Juntaren erdia berritzen delako.

Juntak aitzineko ikasturteko ekintzen berri eman zuen. Ondotik urteko kontuak ere onartu egin ziren inongo arazorik gabe. Ikasturtean antolatzen diren ekintze-

tan laguntzeko borondate handirik ez dela ikusita, guraso guztiak txandatzat eta zerrendari jarraituz behartzea proposatu zuen Juntak eta onartu egin zen. Azkenik, Junta berri izan zen. Hauexek dira sartutako lau juntakide berriak: Mari Eugi, Rosa Sein, Jose Canabal eta Maite Mendiburu.

Herria ezagutuz



Iguzkiagirrea

Iguzkiagirre izena aditzaerakoan herrian hagitza zabaldia dagoen abizena etorriko zaie seguraski gehienera buroa, baina gutti izanena dira herrian lehenago izen horretako etxea bazela dakitenak. Gaur egun Goikoetxeberria (Gotxeberri) izenarekin ezagutzen dugun etxearen gaineko aldean bertze etxe bat izaten zen: Iguzkiagirrea. Etxe honi buruzko informazioa hagitza mugatua da denborari dagokionez. XVIII. mende hasieran agertzen dira lehenbiziko datuak eta mende bat geroago eroria edo guttienez hutsa zegoela ziurtatzen ahal da. Etxea kokatzeko datuak badira, 1787ko ohar honetan: «*ejecutar noventa estados de calzada comenzando de la puerta de Eguimendichipia hasta la de Iguzkiagirrea*». Etxea egon zeneko lur eremua Goikoetxeberrikoa da gaur egun, baina, lehenago jabearen, Antonio Zubiri zenaren eskriturak ederki kokatzen dute aipatutako lur horren baitan: «*pieza en el paraje llamado Iguzki-aguerrea, en cuya parte inferior está el solar o ruinas de la casa que existió de igual nombre*». Dokumentu horiek diotenez, mugak Irigoiena eta Egintxipiaren lurrekin eta Piedadeko bidearekin ditu.

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut

Thos. 948 631 342 BERA - Thos. 948 637 173 LESAKA

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

ARANTZA

Udazkeneko Kulturaldia urriaren hondarretik azaroaren 3ra izanen da

Baserritarren Egunarekin hasiko da azaroa zazpigarren urtez

Nerea ALTZURI

Gero eta hurbilago ditugu urtaro honetako kultur egunak. Euskara Batzordeko ordezkariak bilkura pare bat egin ondotik, urriaren 31tik azaroaren 3rako aste hondarrean egin beharreko kultur ekitaldiak lotuak gelditu dira. Herriko Etxeak eta UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak) diruz lagundutako egun hauetako ekitaldietan, herriko talde ezberdinen laguntza ere eman da.

Urriaren hondar eguneko ilunabarrean, Pello Zabala eguraldi adi tuak Euskal Herriko eguraldiaz eta tenporez solasaldia eskainiko du Zahar Txokon. Beti ere eguraldia lagun izanen dugulako itxaropenarekin, Baserritarren Egunaren zazpigarren edizioa izanen da bihara-

mon goizean. Azaroaren lehenbiziko egune-ko goizean, herriko artisten erakusgarriekin osatutako merkatua edo azoka frontoian izanen da. Alkarkide txarangak ere bertako eta bisitarien giroa alaituko du pilotalekuan, eta goizpasa egin ondotik, bazkaria izanen da Zahar Txokon, Mendizabal eta Zerberio bertsolariekin.

Hurrengo egunean, azaroaren 2an, haurrei zuzendutako ekitaldiak izanen dira arratsalde hasieran. Bihar taldearen «Kli Kla Birtzikla» antzezlanak eskolan ikusgai izanen da eta ondotik, hurbiltzen diren guziei berendua ematen zaie. Ilunabar partean, adin ezberdinetako neska-mutilentzat mustxapelketak egingen dira Ekaitza elkartearen.

Udazkeneko Kultu-

raldiari akabera emateko, igande goizean, Kulki taldearen eskutik herri kirol saioa izanen da pilotalekuan; eta arratsaldean berriz, Agoitze dantza taldeak bere emanaldia eskainiko du.

Beraz, irakur deza-kezuen modura, heldu den hilabeteko lehenbiziko asteburuko plana eginga izan dezake edo-nork. Herriarri gonbidapena bederen, lerro hauen bitartez eginga zaitzu, irakurle!

Xorroxin Irratia eskolan

Hasiak ez badira, abudo hasiko dira eskolako irakasle eta ikasleak irratsaioak prestatzen. Ikasturte hasieran Ttipi-ttapa Telebista izan zen bertan, azken aldiaren aipatu bezala. Astelehenean, urriak 21, he-



ARTXIBOKOA

Herriko baserri, baratze eta mendietatik bildutako produktuak ikusteko, dastatzeko eta erosteko modua izanen da Baserritarren Egunean.

rriko eskolako lagunek, Xorroxin Irratiko unitate mugikorra estreinatuko dute aurrean, Arantzaz hasiko baitira herriko emanaldiak. Aste guzian, herri komunikabide batean esatari lanean aritzeko esperientzia errepikatuko dute batzuek, bertze batzuek beharbada, estrenatu. Aranztarrek, herriarrek eginiko saioak gustora adituko dituzte!

Ilargi okindegiaren inaugurazioa

Irailaren 27an, ilunabarrean, ireki zuten Ilargi okindegi berria. Ogiak, opilak, txokolateak eta kafeak egiten dira Jabi Larretxeak ireki duen okindegian.

Lehendik ere hasiak ziren ogia banatzen etxez etxe eta auzoz auzo. Orain, herriko den- dan ere erosi ahal izanen da.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxes: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



ALBERGEA JATETXEA

© 948 634179
ARANTZA

MALERREKA

Eratsun eta Saldias lotzen dituen bidaxka zabalduko dute laster

Hiru metro terdiko zabalera eman nahi diote

ttipi-ttapa

Eratsun eta Saldias lotzen dituen bidaxka zabalteko lehen pausua eman du Eratsungo Udalak. Hain zuzen, bide zabalte horrek ukitutako dituen ondasunen zerrenda onartu zuen irailaren 21ko udal batzarrean. Miguel Ezkurra Telletxeak duen 5.452 metro koadroko belagian 319 metro ukituko luke bidearen zabalteak eta hiru haritz ere bota beharko lirateke. Horren trukean, hiru metro terdiko zabalera duen bidea egiten litzateke. Jose Luis Eskudero, Eratsungo alkateak aipatu digunez, «errepidetik joanda 10 kilometrora dugu Saldias. Bide horretatik, berriZ, 2 kilometro besterik ez. Baserritarrek ere traktorea lasai sartu ahal izanen dute. Ur-sarea ere inguru horretatik doa eta moldaketak egitera lasai sartu ahal izanen da». Lanak urte bukaeran edo 2003 urte hasieran hasiko omen dira.



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA
Pedro Osinaga aktore nafarra Onddo eta Zizen kofradiako ohorezko kide izendatu zuten. Argazkia, Doneztebeko txistulariekin ageri da.

Elgorriagako Onddo Kofradiako kide berriak izendatu zituzten

Elgorriagan egoitza duen Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiako kide berriak izendatu zituzten urriaren 6an. Aurtan, Jesus Laguna, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, Carlos Car-

nicer abokatua, garai batean erremontelari izandako Jesus Grazeña, 73 urteko elgorriagarra eta Pedro Osinaga antzerki aktore nafarra izendatu dituzte kofradiako ohorezko kide. Goizeko Meza on-

doan egin zituzten izendapenak. Arangurengo Abesbatzak ere bere emanaldia eskaini zuen. Ondoren, Jose Miguel Galarregi Elgorriagako alkate eta Kofradiako Miasu Handiak herrian Museo Mikologikoa egiteko dirulaguntza eskatu zion Jesus Laguna kontseilariari.

Aurtizko Ostatuak ere ateara itxiko ditu

Iban ISASI

Azken alean aipatu genuen iturengo Herriko Ostatuaren enkantean inor ez zuela proposamen ekonomikorik aurkeztu. Beraz, itxia dago bertze enkante batean norbaitek hartu arte. Hau nahikoa ez balitz, orain Aurtizko Ostata itxi behar dela jakin dugu. Azaroaren erdialdera, San Martin bestak akitu ondotik, utziko dute azken sei urteetan aritu diren Xabier eta Lourdesek. Auzotarrek tristuraz hartu dute berria.

Aerobic ikastaroa

Urriaren 8an, asteartearekin, hasi zen Ibitza kultur taldeak antolatu duen aerobic ikastaroa. Azkenean 35 dira (eta ez 57 azken alean aipatu genuen bezala), astearte eta ortzegunetan, 20:30etatik hasi eta 21:30etara izerdia ko-reografia bati segika aterako dutenak Herriko Etxeko sabaian.



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

GOIZUETA

Bi kuota ezberdin izanen dira aurten Basauntz ehiztarien elkartean

Herrian bizi direnek 42 euro ordainduko dute

Esteban AROTZENA

Basauntz ehiztarien elkarteko komisioak hartu berri duen akordioak dioenez, ez dute kuota berdina ordainduko bertako kide guztiek.

Herritarra izan edo herritar bat bikotelagun edukitzea nahikoa da orain ere Basauntz elkarteko bazkide izateko, baina ordaintzerakoan heldu dira orain arte ez bezalako ezberdintasunak, ondorengo hauek hain zuzen: Goi-

zuetan bizi direnak eta nahiz kanpoan izan gaur egun, gutxienez hamar urte herrian bizi izan direnak, 42 euroko (7.000 pezeta) kuota izanen dute. Gainerako guztiek, berriz, 150 eurokoa (25.000 pezeta).

Asier Olaizolak, Imanol Legarretak, Aimar Olaizolak, Carlos Hernandezek, Jabier Zaballak, Antton Albisturek eta Agustin Elizegik osatzen dute aurten ehiztarien elkarteko komisioa.

Larreak erretzeko baimena

Igande honetan, urriaren 20an, bukatzen zaie baimena eskatzeko epea aurtengo neguan larreak erretzeko asmoa dutenei.

Eskaera egiten duenaren datu pertsonal guztiez gain, larrea erretzen lagunduko dioten izenak eta sinadurak aurkeztu beharko dituzte interesatuak Herriko Etxean. Baita lur eremuaren eskritura osoa-



ARTXIBOKOA

Kanpoko ehiztariak askoz gehiago ordainduko dute.

ren kopia ere, erre beharreko lekua markatu-

ta eta katastroko erreferentziarekin gainera.

ARESO

20.433 euro eskuratu ditu aurten Udalak ehiza postuen enkantean

Juana Mari SAIZAR

Ehiza postuak aurtengoan 20.433 eurotan eman dira (3.400.000 pezeta inguru), enkantearen ondorioz. Uso ehiza hasia da dagoneko eta lehenbiziko usoak ikusten hasiak dira. Bestalde, Usoa elkartekoak basurde ehi-zarako garaian daude eta asko harrapatzen ari

dira. Berrikuntza gisara, aurten orkatza izugarri ugartu denez, baimena dute horiek ere ehizatzeke. Suertez, asko erori omen dira beraien eskuetan.

Miguel Laranbehere apaiza berria

Miguel Laranbehere Iruñeko apaiza gaztea



ARGAZKIA: JUANA MARI

Lehendabiziko usoak ikusten hasiak dira Aresoko mendietan. Basurdea eta orkatza ere izugarri harrapatzen ari omen dira ehiztariak.

etorri da herrira eta Inaxio diakonoarekin batera, aurten gure parrokian lanean ariko dira. Laister elizako ekintzak, katekesia hain zuzen ere, herriko katekista

gazteekin batera martxan jarriko dute.

Ingeles ikastaroa eta kantu tailerra

Aurtengo eskolaz kanpoko ekintzak mar-

txan jarri dira. Astean bi egunetan ingeleseko klaseak ematen dira, udalak subentzionatuta, eta astean behin kantu tailerra, Guraso Elkarrekin antolatuta.

LEITZA

Ofizialak gainezka daudelako edo, atzeratzen ari dira lan asko

Udalak egindako zenbait deialdi ere hutsean gelditzen dira

Mikel ILLARREGI

Herrian, aspaldi honetan, etxeko lanen bat egiteko, gremio horretako libre dagoen langileren bat aurkitzea zail xamar gertatzen ari da. Ikusten denez eraikuntza lana ugaritu da aspaldi honetan eta horrek lan txiki eta ez hain txikien atzerapena ohikoa bihurtzen du.

Dena den, etxe arruntetan bezala, udalak lanetarako eginiko zenbait deialditan horrela gertatzen ari da. Adibide moduan, eskolako gimnasioa eta Okile tailerreko komuna konpontzeko obrak esleitzeko deialdia egin zuten eta inork ez du proposamenik aurkeztu. Honen ondorioz obra batzordea teknikariarekin bilduta %10ren beharapena egin zen, baina honetan ere hutsik. Orain, administrazioaz, hau da, gremioz gremio, egin beharko da. Dena den dirulaguntza jaso ahal izateko hile honetan hasi eta



ARTXIBOKOA

Oinatz Bengoetxea. Profesionalean sartu eta ongi hasi gainera. Etorkizun oparoa antzematen zaio.

abenduan bukatu behar dira aipatu obra horiek.

Gauza bera ez bada ere antzeko esan daiteke, oraingoan, mendiko gaietan. Abuztuaren 2an, udalak "Erroizta eta Sagarmia" eta "Sasainbizkar eta Urdiñola" alderdietako egur loteak enkantean ateratzea erabaki ondoren, epea pasatuta lehenbi-

zikoa hutsik geratu da. Bigarrena adjudikatu da eta Maderas Leonet S.L. enpresak hartu du 135.787 eurotan. Lehenbizikoa berriz atera behar dute %10ren beharapenarekin.

Ezinduak

Ezinduei aparkatzeko txartela emateko orduan behar diren bal-

dintzak ez dira zehazten eta horregatik, «*abuso asko ematen direnez*», ordenantza berezi bat egitea onartu da aho batez. Batzuetan, aparkatzeko txartela behar ez duenari ematen zaiola dio udalak eta honen ondorioz, benetan mugitzeko arazoak dituztenak lekurik gabe gelditzen dira.

FLASH

EITB

Aspaldi honetan etxe askotan ETB ikustera-koan edota Euskadi Irratia entzuterakoan mozketak edo interferentziak nagusi ziren, gauetan batez ere. Leitzatik arazorik gabe entzun eta ikusi ahal izateko behar bezalako baldintzak jar ditzan eskatu zaio Nafarroako Gobernuari. Halere, eginikoa udalak eta ETBk berak egin dute baina ez da aski izan. Horregatik orain ongi ikusteko eta entzun ahal izateko frogak egiten ari dira Oitz eta Jaizkibelako errepetidoreekin, sistema digitala frogatuz. Hau ongi ateraz gero, eredu izanen da beste toki batzuetarako.

Suhiltzaileen "karroza"

Lehendik esana dugu, suhiltzaileek kamioi berri baten txasisa lortu zutela eta hau "janztea", karrozeria jartzea besterik ez zela gelditzen. Garantia eta sumintrotroa batetik, osagarriak bestetik eta prezioa hirugarrenez izan dira neurtu direnak karrozeria erosteko. Hau guztia kontuan harturik "Rosenbauer"-ek irabazi du eta bere asmoa betetzeko 75.000 euro emanen zaio. Hau %100ean Nafarroako Gobernuak ordaintzen du.

616 513 491

Pititi

ESKABAZIOAK

(C/Azenda)

31014 DORRIZTE (NAFARRA)

SALEZONES UDANA, S. L.

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua

Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

gaztelu

iturgintza

kalefakzioa
saneamendua
gasa

© 948 510086 / 510156
fax: 948 610856

LEITZA

BAZTAN

Bederatzi milioi euro terdiko aurrekontua onartu du Udalak

Bortz milioi pasatuak inbertsioak egiteko erabiliko dira

ttipi-ttapa

Balleko Udalak 9.500.530 euroko diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten (1.580 milioi pezeta pasatuxek), irailaren 20an onartutako udal aurrekontuaren arabera. EArek eta UPNren aldeko botuekin eta Batasunaren abstentzioarekin onartu dira udal aurrekontu hauek. Gasturik handienak inbertsioetan egiten dira, 5.227.750 euro guzira. Hauen artean, garrantzitsuenak Berroeta, Arizkun eta Elizondoko ur-sareen berritzea eta zolaberritze lanak izanen dira, 1.327.000 euroko aurrekontuarekin, hau da, 220.794.222 pezeta. Kirol instalazioetan lanak egiteko 842.000 euroko inbertsioa egingen da, batez ere Elizondoko udal igerilekuak estaltzeko erabiliko dena. Oihan lanak egiteko 474.000 euro erabiliko dira eta Bozaten museoa egiteko 375.000 euro.



Almandozko Xabier Altzugarai eta Astiz txapelkun suertatu dira Altsasuko pilota txapelketan, finalean Bengoetxea eta Lajosena aurka irabazi ondotik.

ARGAZKIA: RAMON APEZTEKAK UTZIA

Diru-sarrerei dago-kienez, 3 milioi euro dirulaguntza ezberdinen bitartez eskuratuko dira.

Baztan ikastolaren aurrekontua ere onartu zuen Udalak, 405.062 eurotan (67.396.473 pezeta) berdindua. Modu

berean, Francisco Joaquín de Iriarte erresidendiak 1.325.000 euroko diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten.

Joan den urteko kontuak defizitarekin itxi dituela kontuan hartuz, aurrekontu hau berdintzeko, 1.580.000 euro-

ko mailegu edo kreditua eskatu beharko du Udalak. Izan ere, inbertsio handiko lanak egiten ari da momentu honetan, Bozate, Arizkun, Berroeta eta Elizondoko ur sareak eta zola berritzeko lanak, erraterako.

FLASH

Mutildantza ikastaroa

Mutildantza ikastaroa hasteko bilkura egingen da ortziral honetan, urriak 18, 20:00etan Elizondoko Lanbide Eskolan. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek bilkurara agertu daitzila informazio gehiagorako.

7.852 bizilagun

2002ko urtarrilaren 1ean egindako erroldaren arabera 7.852 bizilagun zituen Baztanek, 3.996 gizaseme eta 3.856 emazteki.

Bozateko museoa

Arizkongo Bozate auzoan egingo den eskultura museoa eraikitzeko asmoarekin, Elkarlan Hitzarmena sinatu dute Balleko Udalak eta Nafarroako Gobernuak.

Alderdien Legearen kontra

Alderdien Legea eta bere eraginaren (Batasunaren ilegalizazioa) aurka azaldu zen Balleko Udalak. EArek aldeko sei botuak, Batasunaren aurkako bi botuak eta UPNren 4 abstentzioak jaso zituen EArek proposamenak. Aitzinetik, Batasunak bertze mozioa aurkeztua zuen, ilegalizazioa salatzeaz gain mobilizazioak deitzea ere eskatuz.

ZJ
Zalain
jatetxea

Plaza 10 • Tel. 948 63 29 42
Bera • Nafarroa

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88



Azpilkuetako Gontxean behi batek hiru aretze erditu zituen 1938an. Hiru aretze eder ziren eta behiak inolako arazorik gabe eman zien esnea.

Azienden ferie izatetik besta egun izatera

- Urteak pasatu ahala, aldatu egin da ferien itxura eta izaera
- Udazkeneko besta egunik handiena bihurtu da gaur egun

Baztan eta inguruko herrietako nekazarien eta abeltzainen bilgune zen sasoi batean, negurako erosketak egiteko lekua. Orai, auto edo kamioia hartuta, urte osoan egiten ahal dira tratuak eta erosketak, baina ez du horregatik bere izaera galdu Elizondoko udazkeneko feria egunak. Eziendak oraindik ailegatzen dira Merkatuzelaira. Lehen baino gutiago, egia da; traturik ez da kasik egiten,

baina bere ohiko itxura ez du galdu oraindik pl-zak. Hori bai, aziendekin batera, nekazaritza tresna, arropa, turroi, eskulan eta bertze hainbertze kontu ikusten eta erosten ahal dira Elizondon. Aurten urriaren 25ean izanen dute besta egun nagusia. Goizean feria, arratsaldean pilota partidak. Dena den, larunbateko Atsoferiek ere garai bateko indarra berreskuratzen ari da.

 **Jesus URRUTIA** *Aroz-Berriko sozioa*

«Lehen baserrirako erosten zen bezala, orain etxe inguruak apaintzeko erosten da aunitz»



“25 urtetan, baserri-mundua ikaragarri aldatu da”

Bisozio dira Aroz-Berri, Txomin eta Jesus amaiurtarrak, eta aurten beteko dira 25 urte lan-egia ideki zutenetik.

Orduz geroztik ari dira traktoreak saltzen «hasmentan Italiatik ekartzen

genituen, bertzenaz irabazi tarte ttikia uzten baitzuten».

Baina ez zituzten bakarrik traktoreak ekartzen, baserrietan behar ziren bertze makinak ere ekartzen zituzten.

Gogoratzen duenez, «belar higitu eta biltzeko, urtean laurhunen bat» ekarri izanak aipatzen du. Itxura guztien arabera, urte onak izan ziren urte haiek, juxtu orduan hasi baitzen hemen base-

rrietan makinak eta tresna mekanikoak sartzen. Idea bat egiteko, duela hogeita bortz urte inguruotako baserrietan ez zen apenas traktore handirik, «baziren aunitz traktore ttiki, 30 zaldiko, Paquali, Agria... orduan hasen ziren. Denborarekin gero eta handixeagoak hasi ziren erosten, 45 zaldikoak... eta horrela, gero eta handiagoak. Aunitz sos galdu zuen jendeak hortan. Dirutan, diferentzi handia baitzen ttikiagoetatik handixeagotara. Guk beti akonsejatzen genuen handixeagoak erostea. Behor batetik traktor batera izigarritzko saltoa zen, eta traktoreekin, berdin».

Duela 25 urte hasi zen modernizatzen hemengo baserria

Jesusek kontatzen digunarengatik, argi ikusten da inguruotako baserrien modernizazioan zuzen-zuzenean parte hartzea tokatu zitzaizela. «Traktoreekin, lan berdina egiten da lau edo bortz aldiz lasterrago. Lan egiteko manera aitzinamendu handia da». Hala ere,



azken 25 urteotan ere al-daketa handiak ezagutu ditugu kontu honetan. Aunitz baserri ttiki hustu egin dira, eta baserri handiak, zinez handiak bihurtu dira. «Adinekoek segitzen dute, eta jende gazteak ez du deus jakin nahi. Jornala ez da arabekoa eta segitzekotan inbertsio handiak egin behar

EUSKAL BASERRIAREN ZERBITZURA

Albaitaritza

948 580 980

ALBAIKIDE S.A.

902 169 169
ALBAITARI ZERBITZUA

MERKATARITZA: Botika · Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea · Xaboi eta desinfektatzaileak
Materiala · Hazi · Nitrogenoa · MVE Garrafak



«Jendeak baduenean sosa, enplegatzen du bere "kapritxoetarako". Hortaz, lehen baserrian lan egiteko erosten zuen modu berean, gaur jardinetarako erosten du, jostetan ari zeko. Oroitzen naiz Italiara joan ginenean orain dela 25 urte, bazela han amerikano bat txandalarekin, guk baserrirako erosten genuen bezala, berak jardinerako erosten zuela. Hogeita bortz urte beranduago, hemen gauza bera hasi gara ikusten».

Baserriak espezializatu egin dira, eta gu berriz, dibertsifikatu

Baserrietan espezializazioaren aldeko joera nagusitzen ari dela iruditzen zaio Jesusi. «Gauza guzietan bezala, batez ere behar du espezializatu. Ez dakit noiz artio horrela izanen den, baina tira. Guretzat aldrebes da. Lehen bagenituen 5-10 gauza eta orai behar ditugu 30 gauza bizitzen segitzeko, eta gero eta irabazi tarte tikiagorekin, gainera».

Baina ez hori bakarrik. Lan egiteko eremua ere izugarri handitu eta zabaldu dute Aroz-Berrikoek azken urteotan. «Espainiako iparralde osoan ibiltzen gara, eta baita Euskal Herriko iparraldean ere, zerbait».

dira. Hortaz ari dira grupoak egiten. Kontuak eginez, baserrien erdiak baino gutiago geldituko dira orai, baina produzitzen dute lehen baino gehiago». Bistan denez, baserrietako produkzio sistema aldatu egin da arras. Jesussek dioenez «kalidadea esnean bai, baina bertze gauzetan ez dakit».

Aroz-Berri bizi duen dibertsifikazioaren idea egiteko, anekdota aski polita kontatu digu Jesussek. «Jendeak baduenean sosa, enplegatzen du bere "kapritxoetarako". Hortaz, lehen baserrian lan egiteko erosten zuen modu berean, gaur jardinetarako erosten du, jostetan ari zeko. Oroitzen naiz Ita-

liara joan ginenean orain dela 25 urte, bazela han amerikano bat txandalarekin, guk baserrirako erosten genuen bezala, berak jardinerako erosten zuela. Hogeita bortz urte beranduago, hemen gauza bera hasi gara ikusten». Jakin behar orain zer ari ote diren erosten amerikanoak?

Prezio eta neurri guzietako makinak

Baserri ttiki bateko traktor batek, 50 zaldikoa konparazione «lau milioi pezeta balio du». Bertalde, oraiko gazte batek, baserria muntatu duen batek «100 zaldikoa beharko luke, adelanto eta erraztasun guztiekin. Holako batek zazpi milioi pezeta balio du».

Kuadretako montajeak

Dena den, tresnak saltzeaz gain, behitegietao montajeak ere egiten dituzte, «behiak lotzekoak, lurreko parrillak... zuzenean fabrikatik ekartzen ditugu produktua ahalik eta merkeen ateratzeko». Azken finean, zerbitzu ahalik eta osatuena.



- Sistema informatikoen muntaia, salmenta eta moldaketa
- Industri analisia eta mantenua
- Asistentzia teknikorako zerbitzua
- Sare lokalak
- Jendearendako eta enpresendako formakuntza ikastaroak

Giltxaurdi, 17 • ELIZONDO

© 948 58 06 53 - 649 56 14 01

ARKUPE
goxotegi • kafetegia

Tarta bereziak
Etxeko izozkiak

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393



«La Baztanesa, S.A.»

AUTOBUS ENPRESA

Eguneroko eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago 25 • © 948 580129 • ELIZONDO

ZUNZARREN

ARTEKARITZA

- Aseguruak
- Autoen Matrikulazioak
- Gida Baimenen Berritzeak eta
- Garraioliariendako Ikastaroak

**BIDAI AGENTZIA
AUTO-ESKOLA**

© 948 45 22 93 • AMAIUR GAZTELUA 2 • ELIZONDO

**GOIZ-ALDE
OSTATVA**

*Aukera zabala
kazula, bokata
eta pintxotan*



Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO

© 948 581 334


Puri
ETXENIKE

Juli ostatua
ELIZONDO



- *Usoa saltsan*
- *Garbantzuak azarekin*
- *Arkumea txilindron eran*

Usoa saltsan



Usoak lumatu eta garbitu ondotik, egosten jarri behar dira su-eztian, haragia xamur xamurra ateratzeko.

Saltsa egiteko

- 4 tipul
- 3 pastanagre edo azenario
- 3 baratxuri buru

Saltsa prestatzeko manera

Lehenik, kazula batean jarri behar dira barazki guztiak batera presitzen. Ongi beraxtu edo gorrixtu direnean, ura eta gatza bota eta utzi egosten.

Behin egosi denean, iragazki txinatar pasatu saltsa guztiak eta prest geldituko da.

Azkenekoz

Usoak ongi egosiak direnean, presatu dugun saltsan emanen ditugu. Komeni da dena su-eztian pixka bat uztea berotzen, usoen eta barazkien gus-toak elkar hartzeko.

Ilustrazioa: Diario de Noticias

CRIS
Neapaindegia

Ongi pasa
ferietan

☎ 948 580025
Giltxaurdi, 16
ELIZONDO

BETIZY
ALBAITARITZA ZERBITZUAK

- ★ Produktu zoosanitarioak
- ★ Pentsuak
- ★ Aziendendako fresneria

☎ 948 580 230 - Santiago 62 - ELIZONDO

JULI ostatu-jatetxea
Ferietako menu berezia

☎ 948 580 288 · Giltxaurdi 4 · ELIZONDO

MARTIN ARRAZTOA

—Bizikleta, Moto eta
motozerra salmenta
—STHIL motozerra eta
desbrozadora agentzia

Santiago, ELIZONDO
Tfnua.: 948 580 137

Garbantzuak eta aza



Garbantzoak

Bezperatik garbantzoak ur garbian jarriko ditugu berazten. Egosteko, su ezian jarriko dugu, poliki-poliki egiteko. Nahi izanez gero, xerri buztan edo xingarra ere ematen ahal zaie (gustoaren arabera). Behar den denbora utzi egosten (2 edo 3 ordu), eta egosiak direnean, baratxuri refritoa bota gaitetik.

Aza

Aza xehe-xehe egin eta ur-garbiarekin egosten jarri. Behar duen gatza eman. Egosi denean, baratxuri refritoa bota gaitetik.

Bildotsa txilindron eran

Ontzi batean bildotsa zati ttikitan puskatu eta prexitu, behar duen gatza emanez.

Zartagi batean, baratzuri eta tipula gorrituko ditugu, xehe-xehe eginak, eta bildotsari botako ditugu gainetik.

Aparte, patatak eginen ditugu, sobera prexitu gabe, beraxtu batez ere. Eginak daudenean, bildotsari erantsiko dizkiogu eta xuabe-xuabe berotzen utziko ditugu elkarren gustoa hartzeko.



Ambientes

Oihal Dekorazioa

- Alfonbrak
- Kortinak-Osagarriak
- Ezkontza zerrendak
- Dekorazio osoa • Opariak

Tel: 948 452 445 • Santiago 58A • **Elizondo**
Tel: 948 135 760 • Divina Pastora 4 • **Antsoain**
Tel: 948 631 622 • Eztegarra 6 • **Bera**

BERRO-BIDE

*Traktore eta
nekazal tresneriaren
konponketa eta
salmenta*

© 948 453425
ARIZKUN



Iciar MUÑOZ
Amaia LARRAZ

Antxitonea
Jatetxea
ELIZONDO



- *Antxitoneako entsalada*
- *Redondoa saltsan*

Antxitoneako entsalada



Osagaiak

- Chatka kilo bat
- York urdaiazpikoa 250 g.
- Ardi gasna 250 g.
- 5 azenario edo pastanagre
- 7 arraultze egosi
- Letxuga 1
- Antxoaz betetako olibak, lata bat
- Anana edo piña xerrak (3)
- 15 Antxoa xerra (latakoak)
- Maionesa edo saltsa arrosa

Prestatzeko manera

Ontzi batean jarriko ditugu chatka xehexehexe egina eta erantsiko diogu york urdaiazpikoa eta gasna, dena puxka ttikititan xehetua. Segidan azenarioa rallatua erantsi eta goilare batekin ongi nahasiko dugu dena. Gero, arraultze egosiak, letxuga, olibak, antxoak eta anana xerrak botako ditugu, hauek denak ere puxka ttikititan xehetuak. Akitzeko, maionesa edo saltsa arrosa gustoarekin arabera eman, eta apainapain jarri plateran.



Jatetxea - Ostalua
